



EUSKARA JENDEA

Gerren arteko Pizkundean

C MAILA irakaslearen kaiera

“EUSKARA JENDEA” DOKUMENTAL SORTA

Zein izan da gure hizkuntzaren ibilbidea historian zehar? Nola bizi izan du gure jendeak euskara? Nolako eragina izan dute hurbildu zaizkigun herri eta kultura desberdinek?...

“Euskara jendea” dokumental sortak galdera horien eta beste hainbaten erantzunak eskaini nahi ditu. Horretarako, Xamarrek 2006an Pamiela etxean argitaratutako izenburu bereko liburua hartu du abiapuntu, eta liburuak bezala, modu ulerterraz eta atseginean gure hizkuntzak eta gure jendeak eskuz esku egin duten ibilbide luzera hurbiltzea du helburu.

Lana 45 minutu inguruko sei dokumentalek osatzen dute:

- I. HISTORIAREN ATARIAN
- II. ERROMAKO INPERIOAN
- III. ANIZTASUNAREN BIDEAN (ERDI AROA)
- IV. MUGETAN GAINDI (ARO MODERNOA)
- V. GERREN ARTEKO PIZKUNDEAN (1800–1945)
- VI. MUNDUA OSATZEN

KAIER DIDAKTIKOAK

Kaier didaktiko hauen helburua “Euskara jendea” dokumental sorta B eta C mailako euskara ikasleei hurbiltzea da. Horretarako, dokumentalen kontakizunei jarraitzeko eta aipatutako mailei dagozkien hainbat eduki lantzeko jarduerak eskainiko dira kaieretan. Jarduera horiek bai banaka (ikasleak bere kabuz), bai taldeka (euskara eskoletan) erabiltzeko aukera eskainiko dute.

KAIERAK BANAKA ERABILI

Nahi izanez gero, kaier hauek bere kabuz erabili ahal izango ditu ikasleak, irakaslearen edo ikaskideen laguntzarik gabe. Horretarako ariketa bakoitzaren enuntziatua arretaz irakurtzea eta jarraitzea besterik ez dago, “talde lana” sinboloa duten atalak alde batera utzita (👥).

Ariketen erantzunak lan bakoitzaren azken orrian aurkituko ditugu.

GERREN ARTEKO PIZKUNDEAN

Frantziako Iraultzaren ondoren garai gatazkatsuan sartu zen Europa eta, berarekin batera, Euskal Herri osoa: Konbentzio Gerra, Napoleonen konkistak, lehenengo eta bigarren Karlistadak, Espainiako Gerra Zibila, I. eta II. Mundu Gerrak... Hauen guztien artean, ordea, euskarak eta euskal kulturak aurrera egiteko tarteak aurkitu zituzten. Honetaz guztiaz mintzatuko zaigu, hain zuzen ere, “Euskara jendea” sortako bosgarren dokumentala.

AURKIBIDEA

Dokumentala ikusi aurretik

HASIERAKO BERTSOA

1. Napoleoni buruzko bertsoa 4. orr
Helburua: Dokumentala ikusteko interesa piztu

GIAZ PENTSA DEZAGUN

2. Garai honi buruzko aditurik handiena naiz 5. orr.
Helburua: Dokumentalari errazago jarraitzeko, gaiari buruzko hausnarketa egin.

Dokumentala ikusi bitartean

ERANTZUNEN BILA

3. Ikusi bitarteko lanak9. orr.
Helburua: Dokumentala ikusi bitartean, intereseko datuak jasotzeko teknika gogoratu.

Dokumentala ikusi ondoren

LEHIAKETAREN ONDORIOAK

4. Benetako aditua ote naiz? 10. orr.
Helburua: Lehiaketaren ondorioak oinarri, ikusitakoaz hausnartu.

PUNTUAKETA MARKAK (I)

5. Azken zuzenketa 12. orr.
Helburua: Komak erabiltzen nola moldatzen garen aztertu, eta horrekin batera, testu idatziak nola planifikatzen diren gogoratu.

PUNTUAKETA MARKAK (II)

6. Arau batzuk gogoratzen 14. orr.
Helburua: Komak egoki erabiltzeko arau batzuk ikasi edota gogoratu.

7. Nire kontaketa 16.orr.
Helburua: Aurreko ariketetan ikasitakoa praktikan jarri.

Ondorioak eta auto-ebaluazioa 17.orr.

Erantzunak 18.orr.

Dokumentala ikusi aurretik: Bertsoak

XIX. mendearen hasieratik XX. mendera arte garai gatazkatsua irudikatzen hasteko, urte horietako pertsonaiarik garrantzitsuenetako bati buruzko bertsoak eskaintzen dizkigu “Euskara jendea: Gerren arteko Pizkundean” dokumentalak: Napoleon Bonaparte enperadoreari buruzkoa, hain zuzen ere.

1. Napoleoni buruzko bertsoak

1.1 Bete itzazu hutsuneak, eta bertsoen letra osoa irakurri ahal izango duzu.


Bainan Bedi Gira Iñor Nehon Pakian Saindu Zital

Baionako patroina deitzen da San Leon, (1) haundiagorik ez dut senti..... (2) . Sainduen ohoratzen behar..... (3) egon, sainduak on dire..... (4) biba Napoleon! Biba! Biba Napoleon! Biba!	Hil..... (5) Bonaparte gaizto..... (6) hura, zeren munduban eztan (7) haren gura. Lenbailen infernuban sartu dedilla, eta munduba..... (8) geldi dedilla. Hil bedi Bonaparte! Hil bedi!
---	---

1.2 Bertso hauek Napoleoni buruz mintzo zaizkigu, baina oso desberdinak dira estrofa biak. Nork abestuko du, zeure ustez, estrofa bakoitza?

Frantziarrek Espainolek Hegoaldeko euskaldunek Iparraldeko euskaldunek Nafarrek Zuberotarrek

- Lehenengo estrofa abesten dute.
- Lehenengo estrofa abesten dute.

1.3  Elkartu ikaskide pare batekin, eta alderatu eta komentatu ariketa:

- Berdin bete dituzue hutsuneak?
- Badago ulertzen ez duzuen zerbait?
- Zeren arabera aukeratu dituzue estrofa bakoitzeko abeslariak?
- Non mintzatzen dira estrofa bakoitzeko euskalkiak?

Dokumentala ikusi aurretik: Gaiaz pentsa dezagun

Dokumentala ikusi aurretik, mintzatuko zaigun garairi buruz apur bat pentsatu nahi dugu, eta horretarako joko bat egitea proposatzen dizugu: gai honi buruzko benetako aditua zarela erakutsiko duen jokoak, hain zuzen ere.


2. Garai honi buruzko aditurik handiena naiz

2.1 JOKOAREN ARAUAK:

Ondoko orrietan 10 fitxa dituzu. Fitxa bakoitzean gai bat aurkezten da, eta horri buruzko bosna esaldi dago. Fitxa batzuetan esaldi guztiak egiazkoak dira, bat salbu; besteetan, ordea, denak dira gezurrezkoak, bakar bat izan ezik. Irakur itzazu esaldiak banan banan eta... .


- Fitxa bateko esaldi gehienak egiazkoak ala gezurrekoak direla asmatzen baduzu, puntu bat izango duzu.
- Horrez gain fitxa bakoitzean egia edo gezur zein den asmatzen baduzu, beste puntu bat irabaziko duzu.
- Fitxa guztien galderari erantzun ondoren, puntuak zenbatu eta benetan nolako aditua zaren jakin ahal izango dugu.

OHAR GARRANTZITSUA: Erantzunetara jo aurretik, ikus ezazu arretaz dokumentala, eta saia zaitetz bertan behar dituzun erantzunak bilatzen.

2.2  Ikaskide batekin elkartu, fitxetako esaldiak elkarrekin irakurri, eta eman dituzuen erantzunak alderatu eta komentatu:

- Zer dakizue gaiari buruz?
- Zergatik eman dituzue erantzun horiek? Zertan oinarritu zarete?

Ikaskidearekin hitz egin ondoren zerbaitetan iritziz aldatu baduzu, zuzendu zeure erantzunak.



1

XVIII. mendearen amaieran eta XIX.aren hasieran, Frantziako Iraultzaren ostean.

- Espainiak bake ituna sinatu zuen Frantziarekin.
- 1808an Napoleon Espainian sartu zen, Euskal Herria alde batera utzita.
- Mugaz alde bietako euskaldunak elkarrekin borrokatu ziren espainiarren eta frantsesen aurka.
- Debekuen eta bazterketaren ondorioz, euskararen galera nabarmena zen.
- Horrela, Iruñea guztiz erdalduna aurkitu zuen Napoleonek.



AUKERA DEZAGUN (adibidea):

- Guztiak egiazkoak dira, bat salbu
- Guztiak gezurrezkoak dira, bat salbu
- Zein da egia ala gezur bakarra? d

2

XVIII. mendearen amaieran mugimendu kultural eta politiko berria sortu zen: Erromantizismoa.

- Erromantizismoak, modernitatearen bila, ez zuen kultura tradizionaletikiko interesik erakutsi.
- Hala ere, folklorea eta tradizioa jasotzeko ahalegin handia egin zen Euskal Herrian.
- Jasotze horretan atzeritarrek lan handia egin zuten.
- Humbolt alemanak argi zuen euskara Europako hizkuntzarik zaharrena zela.
- Garai batean euskara kontinente osoan zabaldurik zegoela ere bazioen Humboltek.




AUKERA DEZAGUN

- Guztiak egiazkoak dira, bat salbu
- Guztiak gezurrezkoak dira, bat salbu
- Zein da egia ala gezur bakarra?

3

1866an euskalkien lehenengo mapa argitaratu zen.

- Mapa hori Napoleon Bonapartek egin zuen.
- Bonaparte Frantziako printzea izendatu zuten 1815ean.
- Euskal Herrira bost bidaia egin zituen 1856tik 1869ra.
- Emazte euskalduna ere hartu zuen Bonaparte printzeak.
- Bonaparteren bultzadari esker, euskarari buruzko lan ugari argitaratu ziren.



AUKERA DEZAGUN

- Guztiak egiazkoak dira, bat salbu
- Guztiak gezurrezkoak dira, bat salbu
- Zein da egia ala gezur bakarra?

4

1812an, Cadizeko Konstituzioa onartu zen Espainian.

- Cadizeko Konstituzioak Hego Euskal Herriko foruen desagertzea ekarri zuen.
- XIX. mendeko gerra karlistak, neurri handi batean, foruen desagertzearen eraginez piztu ziren.
- Lehenengo gerran karlistak galtzaile atera ondoren, foruak mantentzea erabaki zen.
- Bigarren Gerra Karlistaren ondoren, berezko erakundeak eta legeak osoki indargabetuak izan ziren.
- Herritar askok ez zuten egoera berria onartu eta independentzia aldarrikatzen hasi ziren.




AUKERA DEZAGUN

- Guztiak egiazkoak dira, bat salbu
- Guztiak gezurrezkoak dira, bat salbu
- Zein da egia ala gezur bakarra?

5

Bigarren Gerra Karlistaren ondoren, euskaltzaletasuna piztu zen zenbait jenderengan.

- Antoine d'Abbadie ohartu zen euskarak, irauteko, modernotasunetik urrundu behar zuela.
- Horretarako d'Abaddiek Lore Jokoak sortu zituen: kirola, musika, dantza eta literatur lehiaketak.
- Lore Jokoetan Iparraldeko eta Hegoaldeko euskaldunek parte har zezaketen.
- Lore Jokoak urtero antolatzen ziren mugaren alde bietan txandaka.
- Horren ondorioz, Zazpiak Bat espiritua hasi zen garatzen.

*AUKERA DEZAGUN*

- Guztiak egiazkoak dira, bat salbu
- Guztiak gezurrezkoak dira, bat salbu
- Zein da egia ala gezur bakarra?

6

XIX. mendearen erdian Bigarren Industria Iraultza izan zen.

- Industrializazioa Iparraldean hasi zen lehenago; gero Bizkaira eta Gipuzkoara zabaldu zen.
- Etorkin ugari etorri ziren, gehienak euskaldunak, Bizkaiko populazioa 40 urtetan bikoiztuz.
- Hortaz, etorkinen etorrerak ez zion desorekarik ekarri hizkuntza komunitate euskaldunari.
- Iparraldean ez bezala, Hegoaldeko gazte askok emigratu behar izan zuten Ipar Ameriketara bereziki.
- Mendearen amaieran Kalifornian euskal prentsa aurki zitekeen.

*AUKERA DEZAGUN*

- Guztiak egiazkoak dira, bat salbu
- Guztiak gezurrezkoak dira, bat salbu
- Zein da egia ala gezur bakarra?

7

Bigarren Industria Iraultzan, prentsa masa-fenomenoaren itzalean, Euskalduna astekaria sortu zen.

- Euskalduna, egunero ateratzen zen lehen argitalpena, Bilbon sortu zen.
- Astekarian, batez ere, baserriei eta nekazaritzari buruz mintzatzen zen.
- Hortaz, astekariaren ildo literarioa eta estilistikoa ez zen batere landua.
- Hegoaldean beste bi kazeta plazaratu ziren: Argia eta, 36ko gerran, Eguna, lehen egunkaria.
- Hegoaldean II. Mundu Gerrak eta Iparraldean frankistek kazeta hauek guztiak itxiarazi zituzten.


*AUKERA DEZAGUN*

- Guztiak egiazkoak dira, bat salbu
- Guztiak gezurrezkoak dira, bat salbu
- Zein da egia ala gezur bakarra?

8

XIX. mendearen amaieran hamaika gertaera kateatu ziren: foruen galera, emigrazioa, euskararen desorekaren larriagotzea...

- Ordurako sozialismoak eta abertzaletasunak bazuten lekua jendartean.
- Abertzaletasunaren sustatzaile nagusienetakoa Sabino Arana bizkaitarra izan zen.
- Abertzaleen arabera, hizkuntza-komunitateak egitura politiko propioa behar zuen.
- Orduko sozialista espainiarrentzat, euskarak bere lekua gorde behar zuen gizartean.
- Sabino Aranak, euskararen bilakaeraz kezkatuta, erdal hitzak kendu nahi zituen euskaratik.

*AUKERA DEZAGUN*

- Guztiak egiazkoak dira, bat salbu
- Guztiak gezurrezkoak dira, bat salbu
- Zein da egia ala gezur bakarra?

9

XX. mendearen hasieran euskara eta kultura sustatzeko erakundeen beharra sumatu zen.

- Mendearen hasieran Euskal Herriko biztanle gehienak euskaldunak ziren.
- Hirietan euskara gutxiago egiten zen arren, bertan sortu ziren kultura sustatzeko erakundeak.
- 1919an Euskaltzaindia sortu zen euskara zaintzeko eta normaltzeko.
- Euskaltzaindiaren helburuetako bat euskara batuaren sorrera izan zen.
- Gerra Zibila piztu aurretik, euskara batua sortua zegoen.



AUKERA DEZAGUN

- Guztiak egiazkoak dira, bat salbu
- Guztiak gezurrezkoak dira, bat salbu
- Zein da egia ala gezur bakarra?

10

XX. mendean, Espainiako Gerra Zibila eta II Mundu Gerra etorri bitartean...

- Iparraldean, I. Mundu Gerraren ondorioz, euskaldunen independentismoa indartu zen.
- Hegoaldean kultura bultzatzeko plataformak sortu ziren: bertsolari-guduak, Yakintza aldizkaria...
- 1914an Donostian lehenengo ikastola zabaldu zen arren, ideia ez zen beste herrietara zabaldu.
- Literatura bultzatu arren, garai hauetan poesia baztertu zuten eliteentzako baino ez zelakoan.
- Euskal kulturaren bigarren pizkunde honek Guda Zibilaren ondoren ere jarraitu zuen.



AUKERA DEZAGUN

- Guztiak egiazkoak dira, bat salbu
- Guztiak gezurrezkoak dira, bat salbu
- Zein da egia ala gezur bakarra?



Dokumentala ikusi bitartean: Erantzunen bila

Dokumentala ikusi bitartean aurreko orrietako lehiaketaren erantzunak bila ditzakegu; baina, horretaz gain, lanak bestelako kontu interesgarriak kontatuko dizkigu, eta horiek ere jasotzeko prest egotea komeniko zaigu.

3. Ikusi bitarteko lanak

3.1 Eskura izan itzazu lehiaketaren fitxak dokumentala ikusi bitartean, eta aurkitzen dituzun erantzunak bertan jaso.



3.2 Orri zuri batean dokumentalak eskaintzen zaizkizun bestelako kontu interesgarriak jaso. Oharrak arrakastaz jasotzeko, har itzazu kontuan ondoko aholkuak:


Oharrak jasotzeko aholkuak:

1. Dokumentala ikusten hasi aurretik, jakina, oharrak hartzeko euskarriak eskura jarri: orri zuria, boli-grafoa...

2. Zerbait interesgarri ikusi edo entzuten duzunean (zeure zalantza baten erantzuna, edozelako datu bitxiren bat, harritu zaituen zerbait...), jaso oharra orrian.

GARRANTZITSUA: Datu interesgarri horiek gogoraraziko dizkizuten hitz bakarrak edo esaldi laburrak jasotzea nahikoa da. **Ez galdu denborarik informazioak literal jasotzen, eta ez kezkatu esaldi txukunak, osoak eta zuzenak idazteagatik**, bestela dokumentalaren haria gal dezakezu.

3. Dokumentala ikusi ondoren, tartetxo bat hartu oharrak antolatzeko eta garbira pasatzeko.

3.3  Dokumentala amaitu ondoren, alderatu zeure oharrak ikaskideekin, eta osa itzazu.

Dokumentala ikusi ondoren: Lehiaketaren ondorioak

Dokumentala ikusi ondorengo lehengo lana argi dago: garaiari buruz uste genuen beste genekien ala ez aztertzea. Benetako aditu handiak ote gara? Ikus dezagun, bada.

4. Benetako aditua ote naiz?

4.1 Ondoan dituzu lehiaketaren galderen erantzunak. Aldera itzazu zuk emandakoekin, eta lortu dituzun puntuak zenbatu. Horretarako gogora ezazu:

- Fitxa bateko esaldi gehienak egiazkoak ala gezurrekoak direla asmatu baduzu, puntu bat duzu.
- Fitxa bakoitzean egia edo gezur bakarra zein den asmatu baduzu, puntu bat irabazi duzu.

1 - Guztiak egiazkoak dira, bat salbu
 - Guztiak gezurrezkoak dira, bat salbu
 - Zein da egia ala gezur bakarra?

6 - Guztiak egiazkoak dira, bat salbu
 - Guztiak gezurrezkoak dira, bat salbu
 - Zein da egia ala gezur bakarra?

2 - Guztiak egiazkoak dira, bat salbu
 - Guztiak gezurrezkoak dira, bat salbu
 - Zein da egia ala gezur bakarra?

7 - Guztiak egiazkoak dira, bat salbu
 - Guztiak gezurrezkoak dira, bat salbu
 - Zein da egia ala gezur bakarra?

3 - Guztiak egiazkoak dira, bat salbu
 - Guztiak gezurrezkoak dira, bat salbu
 - Zein da egia ala gezur bakarra?

8 - Guztiak egiazkoak dira, bat salbu
 - Guztiak gezurrezkoak dira, bat salbu
 - Zein da egia ala gezur bakarra?

4 - Guztiak egiazkoak dira, bat salbu
 - Guztiak gezurrezkoak dira, bat salbu
 - Zein da egia ala gezur bakarra?

9 - Guztiak egiazkoak dira, bat salbu
 - Guztiak gezurrezkoak dira, bat salbu
 - Zein da egia ala gezur bakarra?

5 - Guztiak egiazkoak dira, bat salbu
 - Guztiak gezurrezkoak dira, bat salbu
 - Zein da egia ala gezur bakarra?

10 - Guztiak egiazkoak dira, bat salbu
 - Guztiak gezurrezkoak dira, bat salbu
 - Zein da egia ala gezur bakarra?

- Zenbat puntu lortu dituzu orotara?.....

- Eta hemen duzu puntuaketaren interpretazioa:

- 18-20 puntu:** Dakizun guztiarekin, nolatan galdu duzu ordu bete dokumentala ikusten? Zorionak, aditu handia zara.
- 14-17 puntu:** Zuk ere adituztat har dezakezu zeure burua, baina beti dago zer hobetu, ezta?
- 11-13 puntu:** Ez zaude gaiaz txarto jantzita, baina seguru dokumentalak ideiak argitzen lagundu dizula.
- 6-10 puntu:** Ez zabilta erabat galduta, baina garai honetako historia ez da zure espezialitatea, ezta?
- 2-5 puntu:** Historiak eta zuk ez duzue bikote onik egiten. Ikus ezazu dokumentala beste pare bat aldiz ea zerbait itsasten zaizun.
- 0-1 puntu:** Adibideekin ere huts egin duzu? Txoriburu halakoa!

4.2 Elkar zaitetz ikaskide batzuekin, eta ondoko puntuei buruz mintzatu:

- Nolako ondorioak jaso dituzu lehiaketan? Nolako adituak zarete? Zer asmatu duzue eta zer ez?
- Zer iruditu zaizue dokumentala? Saia zaitetzte interesgarrien iruditu zaizkizuen hiru ideia adosten.
- Taldean komentatutakoak gainerako ikaskideekin partekatu.



Dokumentala ikusi ondoren: Puntuaketa-markak (I)

Mintzatzean, esaten dugunaz gain, tonuak eta esaldien eta hitzen arteko etenek izugarri laguntzen digute mezuak ulertzen edota ulertarazten. Idazten dugunean, ordea, ezin dugu horrelako baliabiderik erabili. Baina baditugu irakurleak testua nahi dugun tonuan eta etenekin irudikatzen laguntzeko beste tresna batzuk: puntuaketa-markak. Ondoko orrietan, ikusi berri dugun dokumentala oinarri, puntuaketa-markak egokiago erabiltzen ikasten ahaleginduko gara.

5. Azken zuzenketa?

“Gerren arteko Pizkundea” ikusi ondoren, ikasle batek atentzioa eman dion gaia aukeratu du, eta horren inguruko testua idatzi du. Ondoa duzu testua idazteko jarraitu duen bidea (gaia aukeratu, ideia nagusiak identifikatu, eskema egin...) eta testua bera. Baina puntuazio-markekin, komekin bereziki, ez da ondo moldatzen, eta akats batzuk egin ditu. Lagunduko diozu testua zuzentzen?

5.5 Irakur itzazu ikasleak testuaren planifikazioan eman dituen urratsak.

TESTUAREN PLANIFIKAZIOA



1. Gaia aukeratu: zeri buruz idatzi erabaki.

- *Iraultza Frantsesaren ondorengo urteetan, euskaldunak elkarren artean borrokan ibili zirela kontatu nahi dut.*

2. Ideia nagusiak aukeratu.

a. *Iraultza Frantsesaren ondoko Konbentzio gerra.*
b. *Napoleonen konkista.*

3. Ideia nagusiak adierazteko ideia osagarriak bildu eta antolatu.



4. Datuak elkarri lotuz, ideia bakoitzaren inguruko paragrafo bana idatzi.

5. Idatzitakoa behar bestetan berrikusi eta zuzendu.

Azkenean, eskeman bildu eta antolatu dituen datuak gogoan, ikasleak testua idatzi du. Hasieran, behar den bezala, zirriborroa idatzi du; ondoren, zirriborroa berrikusi eta testu zuzendua garbira pasatu du. Baina oraindik badu zer hobetu.

5.6 Testuan bederatzi akats daude: koma batzuk falta dira, eta dauden beste batzuk ez lirateke egin beharko. Irakur ezazu arretaz, eta kopia ezazu orri batean behar diren zuzenketak eginda.

Iraultza Frantsesean Luis XVI.a erregeari, gillotinan burua moztu ondoren Espainiak gerra deklaratu zion Frantziari. Konbentzio Gerran, bi urtez, euskaldunak elkarri borroka egitera, behartuak izan ziren. Gerra hartako ondorioak muga aldeko herriek pairatu zituzten gehien. Lapurdin esaterako, frantses armadarentzat muga zaindu ordez Hegoaldera ihes egin zuten gazte askok. Agintariek mugatarrei leporatu zieten desobedientzia, eta herri batzuk traidore izendatu zituzten, besteak beste, Sara Ezpeleta eta Ainhoa. Beren biztanleak gaizkileak balira bezala, Landetara eraman eta preso hartu zituzten, eta herriok hutsik geratu ziren.

Konbentzio Gerraren kalteak herrietan oraindik begi bistakoak zirelarik, 1808. urtean Napoleon Bonaparteren armadak berriro hartu zuen mendean Euskal Herri osoa, Europa gehiena bezala, bestalde. Hamaikagarrenez oraingoan Frantsestea izeneko gerran euskal herritarrak aurrez-aurre aurkitu ziren, eta alde bateko eta besteko euskaldunen arteko harremanak osterare, gaiztotu ziren.



Dokumentala ikusi ondoren: Puntuaketa–markak (II)

Puntuaketa–markak egokiago erabiltzeko, arauak gogoratzea komeni da. Hortaz, orri honetan aurreko ariketa egiten lagunduko diguten arau batzuk eskainiko dizkizugu.

6. Arau batzuk gogoratzen

6.1 Hemen dituzu komak erabiltzeko arau interesgarri batzuk. Irakur itzazu, azter ezazu aurreko orriko testuan puntuaketa-markak ondo jarri dituzun, eta akatsik aurkitzen badituzu, zuzendu itzazu.

(sites.google.com/site/euskaljakintzaega/puntuazioa)

PUNTAZIO-MARKAK

1. KOMA



Irakurketan egin behar diren pausaldi laburrak edo txikiak markatzeko erabiltzen da. Honako kasu hauetan erabiltzen da batik bat:

1.1. Zerrendapenetan, esaldiko bi zati edo gehiago bereizteko, mota berekoak direnean eta segidan doazenean:

- *Gaur goizean, azokan, harategian, arrandegian eta okindegian izan naiz.*
- *Bilbo, Iruñea, Donostia eta Gasteiz dira Hego Euskal Herriko hiriburuak.*

1.2. Klausula bateko esaldiak bereizteko, pausaldia egiten denean:

- *Kalera bazoaz, eros ezazu egunkaria.*
- *Eser zaitez, nekatu egingo zara eta.*
- *Bidaia batetik datorrenean, opariak ekartzen dizkie beti seme-alabei eta emazteari.*

1.3. Deikia edo bokatiboa esaldiaren hasieran doanean, koma darama ondoan. Deikia perpausaren barnean dagoenean, koma artean jartzen da

- *Mikel, ekar itzazu oinetako horiek.*
- *Aizu, Itziar, zatoz lehenbailehen.*

1.4. Perpaus baten barruan, esandakoa argitzeko edo osatzeko beste esaldi bat tartekatzen denean, kontaera nagusia ebakitzen duen esaldi hau koma artean jartzen da. Parentesi artean edota bi marren artean ere jar daiteke:

- *Koldo, Maiteren anaia, etxera joan da.*
- *Laurak arte edo, nire iritzia hau da behintzat, ez da etorriko.*
- *Zuk diozun hori, oker ez banago, orain dela urtebete gertatu zen.*

1.5. Esaldiaren barruan daudenean koma artean eta esaldiaren hasieran daudenean, koma ondoan dutela idazten dira gisa honetako molde eta lokailuak:

Hau da, hots, esate baterako, azkenik, azken finean, haatik, hala ere, izan ere, beraz, bukatzeko, adibidez, hala eta guztiz ere, dena dela, dena den, hortaz, nolana ere, orduan, bada, ordea, aldiz, berriz, besteak beste, bestalde, gehienetan, egia esan, otoi, gainera, alegia, -z gero, hain zuzen, esaterako eta abar.

1.6. Bai eta ez bat baino gehiago izanez gero koma jarriko dugu:

- *Bai trena, bai kotxea, bai hegazkina ere, oso gogoko ditut.*

1.7. Aditz berbera duten esaldi-segidan elipsia egiten denean:

- *Idazkariak zortzi telefono-dei jaso ditu; idazkari-laguntzaileak, bost; eta menpekoak, hamar.*

1.8. Eta, edo eta ala partikulen ondoren, zenbait kasutan:

- *Gaisorik zegoela eta, ez zen lanera joan.*

1.9. Aposizioetan:

- *Abenduaren 28an, Inuzenteen egunean, ederki sartu ziguten ziria.*

OHARRA: Aurreko arau horiek, puntuaketa-markak ondo erabiltzeko beste arau batzuekin batera, Euskal Jakintzaren web gunean aurkitu ditugu (sites.google.com/site/euskaljakintzaega/).

6.2 Elkartu ikaskide batekin, eta alderatu egin dituzuen lanak:

- Komak leku desberdinetan jarri badituzue, irakurri arauak, eta komak non jarri behar diren argitzen saiatu.
- Ikaskidearekin lanak alderatu ondoren zalantzatan geratuz gero, gainerako ikaskideen edota irakaslearen laguntzaz argitu.



7. Nire kontaketa

Amaitzeko, aurreko ariketetan ikasitakoa praktikan jarriko dugu: bosgarren ariketako eredia gogoan, testu bat planifikatu eta idatziko dugu, eta testu horretan komak behar bezala erabiltzen ahaleginduko gara.



OHARRA: *testuaren planifikazioa egiteko ikaskide batekin elkar zaitezke. Horrela bada, “a”, “b” eta “c” puntuetako lanak elkarrekin egingo dituzue; ondorengo puntuak, ordea, banaka egitekoak dira.*

7.1 Aukera ezazu “*Gerren arteko Pizkundea*” dokumentalean interesgarri iruditu zaizun gai bat. 5-7 orrietako fitxetara jo dezakezu gaia aukeratzeko. Zer kontatu nahi duzu?

.....

.....


7.2 Testuan garatuko dituzun ideia nagusiak aukeratu. Lana errazteko, bi edo, gehienez, hiru ideia nagusi aukeratu. Ideia horiek identifikatzeko eta ondoren beharko dituzun ideia osagarriak biltzeko ere, 5-7 orrietako fitxak erabili ahal izango dituzu.

1.
2.
3.

7.3 Orri batean aukeratu dituzun ideia nagusiak garatzeko ideia osagarriak bildu eta antolatu. Egoki iritziz gero, 5. ariketako moduko eskema presta dezakezu.

7.4 Prestatu duzun eskema oinarri, testuaren lehenengo zirriborroa idatzi.

7.5 Zirriborroa berrikusi puntuaketa-markei bereziki arreta jarrita. Horretan laguntzeko, seigarren ariketako arauak aurrean izan ditzakezu.

7.6  Testua planifikatu duzun ikaskidearekin elkartu, eta idatzi dituzuen testuak trukatu.

- Elkarren testuak irakurri, komen erabilerari erreparatu, eta elkarren laguntzaz testua hobetzen saiatu.
- Zalantzatan geratuz gero, gainerako ikaskideen edota irakaslearen laguntzaz argitu.



Ondorioak eta auto-ebaluazioa

Edozein lan egin ondoren, oso garrantzitsua da egindakoa ebaluatzea eta ondorioak ateratzea. Horretarako, orri honetan egin dugun lanari erreparatuko diogu, ikusi dugun dokumentala baloratuko dugu, eta egindako ariketarekin ikasi duguna aztertuko dugu.

Dokumentalari buruzko iritzia.

1. Dokumentala zure gustukoa izan da?..... 1 2 3 4 5

- Zergatik?

2. Gaia interesgarria iruditu zaizu? 1 2 3 4 5

- Dokumentalak eskaini dizkizun hiru ideia interesgarri aipatu:

a.

b.

c.

Ariketan ikasitakoaren balorazioa.

3. Komak erabiltzen trebatzeko lanak.

- Ariketak eta arauak lagungarriak iruditu zaizkizu? 1 2 3 4 5

- Puntuaketa-marken erabilera argiago duzu? Zer hobetu duzu?

Erantzunak

1. ariketa: Napoleoni buruzko bertsoak

1.1. Bertsoen letra osoa:

Baionako patroina deitzen da San Leon, saindu haundiagorik ez dut senti nehon . Sainduen ohoratzen behar gira egon, sainduak on dire bainan biba Napoleon! Biba! Biba Napoleon! Biba!	Hil bedi Bonaparte gaizto zital hura, zeren munduban eztan iñor haren gura. Lenbailen infernuban sartu dedilla, eta munduba pakian geldi dedilla. Hil bedi Bonaparte! Hil bedi!
---	---

1.2 . Nork abesten du?

- Lehenengo estrofa **Iparraldeko euskaldunek** abesten dute.
- Lehenengo estrofa **Hegoaldeko euskaldunek** abesten dute.

2.1 . ariketa: Garai honi buruzko aditurik handiena naiz.

OHARRA: Ariketa honen erantzunak eta galdetegiaren interpretazioa kaieraren 9. orrian daukazu. Hala ere, gogoratu erantzunak begiratu aurretik dokumentala ikusi behar duzula.

- Lehiaketako gaiei buruzko egiazko adierazpen guztiak ezagutu nahi badituzu, hemen dituzu:

- XVIII. mendearen amaieran eta XIX.aren hasieran, Frantziako Iraultzaren ostean...
 - Espainiak gerra deklaratu zion Frantziari.
 - 1808an Napoleonek Euskal Herri osoa mendean hartu zuen.
 - Mugaz alde bietako euskaldunak elkarren aurka borrokatu ziren.
 - Debekuen eta bazterketaren ondorioz, euskararen galera nabarmena zen.
 - Hala ere, Iruñea nahiko euskalduna aurkitu zuen Napoleonek.
- XVIII. mendearen amaieran mugimendu kultural eta politiko berria sortu zen: Erromantizismoa.
 - Erromantizismoak kultura tradizionaletikiko interes handia erakutsi zuen.
 - Horren ondorioz, folklorea eta tradizioa jasotzeko ahalegin handia egin zen Euskal Herrian.
 - Jasotze horretan atzerritarrek lan handia egin zuten.
 - Humbolt alemanak argi zuen euskara Europako hizkuntzarik zaharrena zela.
 - Garai batean euskara kontinente osoan zabaldurik zegoela ere zioen Humboltek.

3. 1866an euskalkien lehenengo mapa argitaratu zen.
 - Mapa hori Louis Lucien Bonapartek egin zuen.
 - Bonaparte Frantziako printzea izendatu zuten 1815ean.
 - Euskal Herrira bost bidaia egin zituen 1856tik 1869ra.
 - Emazte euskalduna ere hartu zuen Bonaparte printzeak.
 - Bonaparteren bultzadari esker, euskarari buruzko lan ugari argitaratu ziren.

4. 1812an, Cadizeko Konstituzioa onartu zen Espainian.
 - Cadizeko Konstituzioak Hego Euskal Herriko foruen desagertzea ekarri zuen.
 - XIX. mendeko gerra karlistak, neurri handi batean, foruen desagertzenengatik piztu ziren.
 - Lehenengo Karlistadaren ondorioz, foruak Espainiako Konstituzioaren barruan mantentzea erabaki zen.
 - Bigarren Gerra Karlistaren ondoren, berezko erakundeak eta legeak osoki indargabetuak izan ziren.
 - Herritar askok ez zuten egoera berria onartu eta independentzia aldarrikatzen hasi ziren.

5. Bigarren Karlistadaren ondoren, euskaltzaletasuna piztu zen zenbait jenderengan.
 - Antoine d'Abbadie ohartu zen euskarak, irauteko, modernotasunari heldu behar ziola.
 - Horretarako d'Abaddiek Lore Jokoak sortu zituen: kirola, musika, dantza eta literatur lehiaketak.
 - Lore Jokoetan Iparraldeko eta Hegoaldeko euskaldunek parte har zezaketen.
 - Lore Jokoak urtero antolatzen ziren mugaren alde bietan txandaka.
 - Horren ondorioz, Zazpiak Bat espiritua hasi zen garatzen.

6. XIX. mendearen erdian Bigarren Industria Iraultza izan zen.
 - Bizkaian hasi zen lehenago; gero Gipuzkoara zabaldu zen.
 - Etorrin ugari etorri ziren, gehienak erdaldunak, Bizkaiko populazioa 40 urtetan bikoiztuz.
 - Etorrinen etorrerak desoreka ekarri zion ordura arte nahiko euskalduna zen hizkuntza komunitateari.
 - Iparraldean, hainbat konturen ondorioz, gazteen emigrazioa eman zen, Ipar Ameriketara bereziki.
 - Mendearen amaieran Kalifornian euskal prentsa aurki zitekeen.

7. Bigarren Industria Iraultzan, prentsa masa-fenomenoaren itzalean, Euskalduna astekaria sortu zen.
 - Euskalduna, euskarazko lehen astekari iraunkorra, Baionan sortu zen.
 - Astekariak denetarikoa gaiak jorratzen zituen: nekazaritza, osasuna, heziketa, berriak, erlijioa...
 - Aldizkariaren ildo literarioa eta estilistikoa zinez landua izan zen.
 - Hegoaldean beste bi kazeta plazaratu ziren: Argia asterokoa eta, 36ko gerran, Eguna, lehen egunkaria
 - Iparraldean II. Mundu Gerrak eta Hegoaldean frankistek kazeta hauek guztiak itxiarazi zituzten.

8. XIX. mendearen amaieran hamaika gertaera kateatu ziren: foruen galera, emigrazioa, politika zentralisten gorpuztea, euskararen desorekaren larriagotzea...
 - Ordurako sozialismoak eta abertzaletasunak bazuten lekua jendartean.
 - Abertzaletasunaren sustatzaile nagusienetakoa Sabino Arana bizkaitarra izan zen.
 - Abertzaletasunaren arabera, hizkuntza-komunitateak egitura politiko propioa behar zuen.
 - Orduko sozialista espainiarrentzat, euskarak ez zuen tokirik gizartean.
 - Sabino Aranak, euskararen bilakaeraz kezkatuta, erdal hitzak kendu nahi zituen euskaratik.

9. XX. mendearen hasieran euskara eta kultura sustatzeko erakundeen beharra sumatu zen.
 - Mendearen hasieran Euskal Herriko biztanle gehienak euskaldunak ziren.
 - Hirietan euskara gutxiago egiten zen arren, bertan sortu ziren kultura sustatzeko erakundeak.
 - 1919an Euskaltzaindia sortu zen euskara zaintzeko eta normaltzeko.
 - Euskaltzaindiaren helburuetako bat euskara batuaren sorrera izan zen.
 - Batasun linguistikoak, hala ere, hamarkada batzuk itxaron beharko zituen oraindik.

10. XX. mendean, Espainiako Gerra Zibila eta II. Mundu Gerra etorri bitartean...
 - Iparraldean, I. Mundu Gerraren ondorioz, frantziar nazionalismoa indartu zen.
 - Hegoaldean kultura bultzatzeko plataformak sortu ziren: bertsolari-guduak, Yakintza aldizkaria...
 - 1914an Donostian lehenengo ikastola zabaldu zen; laster Hegoalde osoan zabaldu ziren eskolak.
 - Garai haueetan poesia lehenetsi zuten bere funtzio sozial eta politikoagatik.
 - Euskararen eta euskal kulturaren bigarren pizkunde hau Guda Zibilarekin amaitu zen.

5.2. ariketa: Non doaz koma hauek?

TESTUA ZUZENDUTA (komak dagozkien lekuetan jarrita)

Iraultza Frantsesean Luis XVI.a erregeari gillotinan burua moztu ondoren, Espainiak gerra deklaratu zion Frantziari. Konbentzio Gerran, bi urtez, euskaldunak elkarri borroka egitera behartuak izan ziren. Gerra hartako ondorioak muga aldeko herriek pairatu zituzten gehien. Lapurdin, esaterako, frantses armadarentzat muga zaindu ordez, Hegoaldera ihes egin zuten gazte askok. Agintariek mugatarrei leporatu zieten desobedientzia, eta herri batzuk traidore izendatu zituzten, besteak beste, Sara, Ezpeleta eta Ainhoa. Beren biztanleak, gaizkileak balira bezala, Landetara eramane eta preso hartu zituzten, eta herriok hutsik geratu ziren. Konbentzio Gerraren kalteak herrietan oraindik begi bistakoak zirelarik, 1808. urtean Napoleon Bonaparteren armadak berriro hartu zuen mendean Euskal Herri osoa, Europa gehiena bezala, bestalde. Hamaikagarrenez, oraingoan Frantsestea izeneko gerran, euskal herritarrak aurrez-aurre aurkitu ziren, eta alde bateko eta besteko euskaldunen arteko harremanak ostera ere gaiztotu ziren.